ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko abenduaren 20a, ostirala • 144 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeari

Udalbatzak, 2024ko urriaren 17an balio osoz egindako ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari.

Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsi da hasierako onespenaren erabakia.

Bat etorriz Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.4 artikuluan xedatutakoarekin, ordenantzaren testu integratua argitaratzen da.

Administrazio bidea amaitzen duen behin betiko onespenaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorriz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1. artikuluetan xedatutakoarekin. Horrek ez du eragotziko egoki jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztea.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2024ko abenduaren 11

Alkate-lehendakaria
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udalak ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, bat etorriz Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan jasotakoarekin.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerri osoan aplikatzen da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Hau da zerga egitatea:

1. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zuzeneko zerga bat da kargatzen duena bide publikoan ibiltzeko egokiak diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titular izatea, edozein mota eta kategoriatakoak direla ere, baldin eta zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerri honetakoa bada.

2. Ibilgailua zirkulaziorako egokia da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta badago, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena eta turismo matrikula duten ibilgailuak ere zirkulatzeko egokitzat joko dira.

3. Honako hauek ez daude zerga honen kargapean:

a) Antzinako modeloa izateagatik erregistroetan baja eman zaien ibilgailuak, salbuespen gisa horrelako autoen erakustaldi, lehiaketa edo lasterketetan zirkulatzeko baimena izan dezaketenak.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg arterainoko zama erabilgarria dutenak.

III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua

1. Honako hauek zergatik salbuetsita daude:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal erakundeen ibilgailuak, defentsarako edo herritarren segurtasunerakoak.

b) Ordezkari diplomatikoen, kontsulatuen ibilgailuak eta karrerako agente diplomatiko eta kontsulatuetako funtzionario kreditatuenak, dagokien lurraldeko herritar badira. Ibilgailuek kanpotik identifikatuta egon behar dute eta salbuespen hori elkarrekikoa izan beharko da, bai hedapenari, bai neurriari dagokionez.

Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan xedatutakoetatik ondorioztatzen denaren arabera salbuetsi beharreko ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun sorospenerako edo zaurituak eta gaixoak eramateko gainontzeko ibilgailuak.

e) Abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorraren II. eranskinaren A letrak aipatzen dituen mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, baldin eta desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta badaude.

Zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira 14 zaldi fiskaletik behera duten, desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta dauden eta eurek bakarrik erabiltzeko diren ibilgailuak. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai desgaitasuna duten pertsonek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai desgaitasuna duten pertsonak eramateko ibilgailuen kasuan.

Zergatik salbuetsita daude guraso ahala, tutoretza edo kuradoretza dela eta ehuneko 65eko desgaitasuna edo handiagoa daukan pertsona baten ardura dutela frogatzen dutenen ibilgailuak.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritako salbuespenak ez zaizkie aplikatuko onuradun diren subjektu pasiboei ibilgailu bat baino gehiagorengatik.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauek hartuko dira desgaitasuna duten pertsonatzat:

e.1) Ehuneko 33 eta 65 bitarteko desgaitasun gradua onartuta daukaten pertsonak, mugitzeko gaitasuna ehuneko 25 edo gehiago murriztuta daukatenak, Desgaitasunaren gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera, edota 7 puntu edo gehiago lortu dituztenak Minusbaliotasun gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskineko baremoaren D, E, F, G edo H letretan.

e2) Ehuneko 65eko minusbaliotasuna edo handiagoa duten pertsonak.

Aurreko e1) eta e2) letretan aipatzen diren pertsonetatik Desgaitasunaren gradua aitortzeko, adierazteko eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duen urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren mugikortasun jardueren mugak ebaluatzeko azpibaremoaren arabera mugitzeko gaitasuna ehuneko 75 edo gehiago murriztuta daukatenei ez zaie aplikatuko 14 zaldi fiskaleko muga, baldin eta ibilgailua gurpil aulkiarekin erabiltzeko egokituta badago.

Salbuespen hori araututa dago eta eskatu egin beharko da. Udal organo eskudunak berariaz emandako administrazio egintza bidez emango zaie baldintzak betetzen dituzten subjektu pasiboei, eskatuz gero. Eskaeran hauek adierazi behar dira: ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuradun izateko arrazoia. Horiekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira:

— Zirkulazio baimenaren fotokopia.

— Arabako Foru Aldundiak edo organo eskudunak emandako minusbaliotasun ziurtagiria. Ez da nahikoa izango balorazio taldeak emandako irizpen tekniko-fakultatiboa.

— Zinpeko adierazpena, adieraziz ibilgailu hori minusbaliotasuna duenak baino ez duela erabiliko eta beste inolako ibilgailurengatik salbuespen berdina ez daukala.

Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako edo hari atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badauzkate, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako ikuskapen txartela duten traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makinak.

Salbuespen hori araututa dago eta eskatu egin beharko da; hau da, interesdunek aplikatzeko eskatu behar dute, eta horretarako, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia adierazi. Udal administrazioak salbuespena onartu ostean, horren ziurtagiria emango da.

2. Oro har, salbuespenak eskaera egin den urtearen hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, eta ez du atzeraeraginik izango. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada zerga onura, onartu egingo da, baldin eta zerga ordaintzean hura aplikatu ahal izateko eskatutako betekizunak betetzen badira.

5. artikulua

1. Hobari hauek ezartzen dira:

a) Zerga kuotaren ehuneko 100eko hobaria izango dute Ibilgailu Historikoen Arautegiak (1247/1995 Errege Dekretua) historikotzat jotako ibilgailu guztiek.

b) Zerga kuotaren ehuneko 30eko hobaria izango dute 5 leku edo gehiagoko ibilgailuek, baldin eta jabea familia ugariko kide bada, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera. Familia ugari bakoitzeko ibilgailu bat baino ezingo da izan hobaridun.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Hobari horiek ez dira inoiz emango ofizioz, eta interesdunak eskaera egin beharko du zergaren sortzapen urtean, eta eskaerarekin batera hauek aurkeztu beharko ditu:

— Historiko gisa katalogatutako ibilgailua: ibilgailua historiko gisa katalogatzeari buruz autonomia erkidegoak emandako aldeko ebazpena aurkeztu beharko du jabeak, eta uztailaren 14ko 1247/1995 Errege Dekretuak araututako Ibilgailu Historikoen Arautegiak ezarritakoarekin bat etorriz egon beharko da matrikulatuta ibilgailua; horrez gain, ibilgailuaren fitxa teknikoa ere aurkeztu beharko du.

— Familia ugariarentzako ibilgailua: familia ugariaren liburua edo familia ugaria dela egiaztatzen duen beste edozein agiri, ezaugarri berezien ziurtagiria eta ibilgailuaren zirkulazio baimena.

3. Aurreko apartatuko hobariak jasotzeko, interesa dutenek eskatu egin beharko dituzte, eta eskatzen duten ekitaldian jarriko dira indarrean; ez zaie hobaria aplikatuko eskaera egin baino lehenagoko kuotei.

4. Udalak ibilgailuaren ezaugarri teknikoen egiaztagiria eta zirkulazio baimena eskatu ahal izango du, salbuespen eta hobari horiek emateko.

5. Aurreko apartatuetako hobariek eskaera egin den urtearen hurrengotik aurrera izango dituzte ondorioak eta ez dute atzeraeraginik izango. Hala ere, likidazioa irmoa izan aurretik eskatzen bada zerga onura, onartu egingo da, baldin eta zerga ordaintzean hura aplikatu ahal izateko eskatutako betekizunak betetzen badira.

IV. SUBJEKTU PASIBOAK

6. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira ibilgailu baten trakzio mekanikoko zirkulazio baimenean titular moduan ageri diren pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. apartatuan aipatutako erakundeak.

V. KUOTA

7. artikulua

1. Tarifa taula honen arabera eskatuko da zerga 2025eko ekitaldian:

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA
A) TURISMOAK	
8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	14,85 €
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak	39,05 €
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak	82,50 €
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak	102,85 €
20 zaldi fiskal baino gehiagokoak	134,20 €
B) AUTOBUSAK	
21 plaza baino gutxiagokoak	95,70 €
21 eta 50 plaza bitartekoak	135,85 €
50 plaza baino gehiagokoak	169,95 €
C) KAMIOIAK	
1000 kilogramo baino gutxiagoko zama erabilgarrikoak	48,40 €
1000 eta 2999 kilogramo bitarteko zama erabilgarrikoak	95,70 €
3000 eta 9999 kilogramo bitarteko zama erabilgarrikoak	135,85 €
9999 kilogramo baino gehiagoko zama erabilgarrikoak	169,95 €

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA	KUOTA
D) TRAKTOREAK	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	20,22 €
16 eta 25 zaldi fiskal bitartekoak	31,78 €
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	95,34 €
E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK TIRATUTAKO ATOI ETA ERDIATOIAK	
750 eta 999 kilogramo bitarteko zama erabilgarrikoak	20,35 €
1000 eta 2999 kilogramo bitarteko zama erabilgarrikoak	31,90 €
2999 kilogramo baino gehiagoko zama erabilgarrikoak	95,70 €
F) BESTE IBILGAILU BATZUK	
Ziklomotorrak	5,50 €
125 zentimetro kubo arteko motozikletak	5,50 €
126 eta 250 zentimetro kubo bitarteko motozikletak	8,80 €
251 eta 500 zentimetro kubo bitarteko motozikletak	17,60 €
501 eta 1000 zentimetro kubo bitarteko motozikletak	38,50 €
1000 zentimetro kubo baino gehiagoko motozikletak	69,85 €

2026ko ekitaldian eta hurrengoetan, 2025eko ekitaldirako araututako tarifen taula aplikatuko da, ehuneko 10 gehituta.

2. Ibilgailu mota zehazteko, indarrean dauden arauak arau bidez garatu gabe daudenez, irizpide hauei jarraituko zaie:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da, baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela eserlekuak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtsean aldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek turismoei dagozkien zergak ordainduko dituzte, potentzia fiskalaren arabera, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailuak autobusa balitz bezala ordainduko du, bederatzi pertsona baino gehiago (gidaria barne) garraiatzeko prestatuta badago.

Bigarrena. Ibilgailua 525 kilogramoko zama erabilgarria baino gehiago eramateko baimenduta badago, kamioiari dagokion zerga ordainduko du.

b) Zerga honen ondorioetarako, kuatrizikloak motozikleten pareko izango dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoien kasuan, duten edukiera dela eta matrikulatzeko obligaziorik ez badute, zirkulaziorako gai joko dira industria ordezkaritzak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan dauden unetik.

e) Trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeen makina autopropultsatuek traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Tarifen D) letran azaltzen den “traktore” izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta obra eta zerbitzuetarako traktoreak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

g) Zaldi fiskaletan adierazten den potentzia, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera ezarriko da.

h) Karabanek atoiek ordaintzen duten adina zerga ordainduko dute, karga erabilgarriko kilogramoak zenbat diren.

i) Autokarabanek turismoek adina zerga ordainduko dute, zenbat zaldi fiskal dituzten.

j) Egokitu daitezkeen ibilgailu mistoek kamioiek ordaintzen duten adina zerga ordainduko dute, karga erabilgarriko kilogramoak zenbat diren.

VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

8. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da edo trafiko buruzagitzan baja ematen zaion egunean amaitu.

2. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3. Ibilgailua lehen aldiz eskuratzean, zergaren kuota eskuratze egunetik abenduaren 31ra bitarteko aldiari proportzionalki dagokiona izango da, edo ibilgailuari baja ematen zaion egunera arteko aldiari dagokiona, kasua hori bada.

4. Ibilgailuari baja ematen bazaio behin betiko edo, behin-behinean, lapurtu egin dutelako (behar bezala egiaztatu beha da lapurreta), zergaren kuota kalkulatzeko, urtarrilaren 1etik trafiko buruzagitzan ibilgailuari baja ematen zaion egunera bitarteko aldiari dagokion proportzioa hartuko da kontuan.

VII. KUDEAKETA

9. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskatzea eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

10. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

11. artikulua

Udal administrazioak edo finantza erakunde laguntzaileak emandako ordainagiria izango da zerga ordaindu izanaren egiaztagiria.

12. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko bigarren hiruhilekoan ordainduko da zerga; ez, ordea, hurrengo artikuluan jasotzen diren kasuetan, horrelakoetan bertan xedatutakoari jarraituko zaio eta.

13. artikulua

Matrikulazio berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulan sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta hogeita hamar egun balioduneko epean:

a) Zirkulazio baimena.

b) Ezaugarri teknikoen ziurtagiria.

c) NANa edo IFZ.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

14. artikulua

1. Trafiko buruzagitzari ibilgailua matrikulatzeko, zirkulaziorako gaitasunaren ziurtagiria emateko edo ibilgailuari behin betiko baja emateko eskatzen diotenek zerga ordaindu dutela frogatu behar dute aldez aurretik.

2. Ibilgailuen titularrek trafiko buruzagitzari aldez aurretik frogatu beharko diote aurkeztu zaien azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatzen badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen badute, edo ibilgailuari baja ematen badiote. Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja eman nahi bazaio, ez dago ezer frogatu beharrik.

3. Trafiko buruzagitzek ez dituzte ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak izapidetuko, aldez aurretik zerga ordaindu izana egiaztatzen ez bada.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jarri aurretik ibilgailu batzuk trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergatik salbuetsita egon dira zerga horri buruzko uztailaren 19ko 44/1989 Foru Arauko 2.1.d) artikuluaren testu zaharrean ezarritakoaren arabera. Ibilgailu horiek ez badute betetzen foru arau honen 2.1.d) artikuluaren testu berrian ezarritakoa, testu zaharreko salbuespena aplikatzeko eskubidea edukiko dute, ibilgailuak testu hartan salbuespena aplikatzeko ezarritako betekizunak betetzen dituen bitartean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza hau indarrean jartzen denetik, indargabetuta geratzen dira bertan dioenaren kontrako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau 2024ko urriaren 17an egindako ohiko bilkuran aldatu zen; 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da aldatu edo indargabetzea erabakitzen den arte.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.12.20 07:12:06 Z